

5.KANALAK

Zigarro-muturrak biltzeko edukiontzi bereziak jarriko ditugu tokiko garraio publikoaren geltokietan eta parkeetan, Erakunde Publikoekin elkarlanean.

Zerbitzu hau eskaintzeko, udal eta administrazio publikoei zuzenean zuzenduko gara, aurrez aurreko bilerak eta proiektuaren aurkezpenak eginez, gure proposamena azaltzeko.

Bestalde, birziklatutako paperaren salmenta tokiko denda ekologikoetan eta online dendaren bidez egingo da. Online denda hasieratik martxan jarriko dugu, kostu txikia duelako eta bezero gehiagorengana iristeko aukera ematen duelako.

Horrez gain, sare sozialak erabiliko ditugu azken kontsumitzaileengana iristeko eta tokiko komunitatean kontzientziazio-kanpainak egiteko, gure balio-proposamena modu eraginkorrean zabaltzeko.

